

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

177. zenbakia

Data 2006-09-18

21309 orria

6 ELKARTE AUTONOMOKO ADMINISTRAZIOA

EUSKO JAURLARITZA - JUSTIZIA

Gipuzkoako autoeskolen lan hitzarmena.

EUSKO JAURLARITZA

JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

Hitzarmen Kolektiboak Agindu zk. 152/06-F.1490

ERABAKIA, 2006ko irailaren 5koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Gipuzkoako Lurralde Funtzioko ordezkariena. Honen bidez ebazten da 2006-08rako Gipuzkoako Autoeskolak-en hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea zk. 2000135).

AURREKARIAK

Lehenengoa. 2006ko uztailaren 26an aipatutako hitzarmena aurkeztu da, ordezkaritza honetan, Gipuzkoako Autoeskolen Elkartea-k, enpresarien ordezkapenean, eta ELA sindikatuak, langileen ordezkapenean, 2006ko uztailaren 21ean sinaturik.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretu Legegilea (1995-3-29ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, urriaren 18ko 315/2005 Dekretuko 24.1.g artikulua –Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2005-10-27ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*)– dionarekin bat etorritik eta martxoaren 2ko 39/1981 Dekretuarekin (1981-4-2ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 22ko 1040/1981 Errege Dekretuarekin (1981-6-6ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*) –hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak– lotuta.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmenak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

ERABAKI DUT

Lehenengoa. Hitzarmen Kolektiboen Erregistroaren Gipuzkoako Lurralde Atalean inskribatu eta gordailu egiteko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadin xedatzea.

Hirugarrena. Ebazpen honen aurka, adminiztrazio-bidea amaitzen ez duena, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango da Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariaren aurrean, hilabeteko epean, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko 114

artikuluaren eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorrituz.

Donostia, 2006ko irailaren 5a.—Manuel F. Rodríguez Suárez, Lurralde Ordezkaritza funtzionari.

(9957) (9232)

2006-2007-2008RAKO GIPUZKOAKO AUTOESKOLEN HITZARMEN KOLEKTIBOA

1. artikulua.Lurralde eta betekizun eremua.

Hitzarmen honek, Gipuzkoako lurralde osoan Autoeskola izeneko irakaskuntza espezializaturako lantoki guztiengana izango du eragina.

2. artikulua.Pertsonal eremua.

Hitzarmen honek bere barne hartzen dituen arau eta akordioek, duten lan harreman juridikoaren arabera, Autoeskolen Irakaskuntza Zentro bati lotuta dauden langile guztiengana izango du eragina.

Hitzarmen honen aplikazio eremuan barneratutako pertsonala ondorengo bi taldeetan sailkatzen da:

1. taldea. Irakasleak:

a)Teoria irakasten dutenak.

b)Praktika irakasten dutenak.

2. taldea. Irakasle ez diren langileak:

a)Administrari Ofiziala.

b)Administrari Laguntzailea.

c)Garbitzaileak.

3. artikulua.Denbora eremua.

Hitzarmen honek bere argitalpena kontuan izan gabe, 2006ko urtarrilaren 1etik 2008ko abenduaren 31ra iraungo du eragin guztietarako.

Hitzarmen honen indarraldian, hitzarmen kolektiboei buruzko edo politika ekonomikoari buruzko arauak aldatzen badira, hau automatikoki berrikusiko da.

4. artikulua.Baldintza onuragarrienak.

Langileek, beraientzat aurrez itundutako baldintza onuragarrienak gozatzen jarraitzeko eskubidea izango dute.

5. artikulua.Probaldia.

Hiru hilabetekoa izango da irakasleentzat eta hilabetekoa gainerakoentzat.

6. artikulua.Lekualdaketak.

Autoeskoletako langileak, zerbitzugintzan ihardun duten beste sekzio batera lekualdatu ahal izango dira, sekzio hauek herri berean daudenean edo, praktiketan dauden irakasleen kasuan, sekzioen arteko distantzia 15 km. baino gutxiagokoa denean eta beti ere enpresaren beharrek justifikatzen dutenean.

Lekualdaketak 10 eta 15 km. artekoak direnean, lekualdaketek ihardun erdiko iraupena izan beharko dute gutxienez.

7. artikulua. Mailaz igotzeak.

Administrari Laguntzaileek enpresan 4 urteko antzintasuna izatera iristen direnean automatikoki Ofizial mailara igoko direla xedatu dute bi alderdiek.

8. artikulua. Oporrak.

Langile guztiek izango dute hilabeteko edo gutxienez 26 laneguneko oporraldia gozatzeko eskubidea.

Era berean, langile bakoitzak bere opor-egunen erdiak jarraian gozatzeko datak aukeratu ahal izango ditu, Autoeskolak udako oporraldian ixten duelako langile guztiek aldi berean jai hartu behar duten kasuan izan ezik.

Oporraldia abuztuan ezarrita badago, enpresak oporrak hasteko eguna aurreratu ahalko du, bere autoeskolak uztailen duen azken azterketa-egunaren hurrengo egunetik aurrera.

Ordaindutako oporrak izango dituzte Eguberri bezperan (Gabon egunean) eta abenduaren 31n. Aipatutako egunetan Bidezaingo Burutzak Gidari izangaiantzat azterketak jartzen baditu, enpresariak atsedenerako beste aukerako egun bat izendatuko du dagokion astearen barruan.

Abuztuko oporrak hastean langile bat amatasuneko bajaran badago, oporrak hartzeko eskubideari eutsiko dio langile horrek baja amaitu eta gero, Langileen Estatutuak ezartzen dituen denborazko mugen barruan.

Hitzarmen honek ukitzen dituen langile guztientzat, ordaindutako jaiegun izango da urte bakoitzeko urriaren lehenengo ostirala. Hala ere, bateraketa irizpideak jarraituz, egun hau Euskadiko Autoeskolen Federazioak finkatzen duen egunera aldatu ahal izango da, larunbat, igande edo jaiegun batekin bat ez badator behintzat.

Autoeskolen Eguneko lanegunean zenbatuko diren orduak jaiegun horretan lan egin direnak izango dira, eta gutxienez 5 ordu izango dira jardun osoko kontratua duten langileentzat.

9. artikulua. Jubilazioa.

Enpresan gutxienez hamabost urteko antzintasuna duen langilea erregelamenduak finkatzen duen adinean jubilatzen bada, honek enpresatik bost hileko zenbateko osoa eta, hamabost urteak gainditzen dituen bosturteko bakoitzagatik hilabete bat gehiagori dagokion zenbatekoa jasoko du.

Langilea hiru hilabeteko epearen barruan jubilatzen bada, borondatezko jubilaziorako adinera iristen denean ziurtatutako alokairu errearen lau hileko jasoko ditu, zenbateko hau aurreko pasarte aplikatzearen emaitzako zenbatekoa baino txikiagoa ez den bitartean.

Jubilazioko pentsioa ziurtatua badute, egoera horretara gehienez ere 65 urterekin igarotzeko gomendatzen diete bi alderdiek enpresari nahiz hitzarmen honek ukitzen duen pertsonalari.

64 urterekin jubilatzeako sistema berezia, 1994/85 Errege- Dekretuaren arabera beren eskubideen %100ean erabiltzeko gomendatzen diete bi alderdiek enpresari nahiz hitzarmen honek ukitzen duen pertsonalari.

10. artikulua. Lan ordutegiak.

1. Praktika irakasleak.

Bi ordutegi mota edo modulu ezarri dira:

A) Modulua:

—Ordutegi definiturik gabe egingo da lan.

—Hileko 150 ordutik aurrera, eta alokairu taulan zehaztutakoaren kalterik gabe, 0,77 eurotako osagarria finkatu da 2006an lan egindako ordu bakoitzeko. Zenbateko hori berrikusiko da, eta 2007ko urtarrilaren

1etik eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, kasu bakoitzean aurreko urteko KPI + 0,6 aplikatuta.

B) Modulua:

—7 orduko eguneko iharduna mantentzen da (astelehenetik ostiralera 35 ordu asteen). Goizeko ordutegia 9etatik ordu batera izango da eta arratsaldekoa 4etatik 8etara. Hasiera batean, hitzarmen hau indarrean sartzen denean Autoeskola bakoitzean dagoen ordutegia mantenduko da. Dena den, lana goizeko 8ak eta arratsaldeko 8ak bitartean egingo da.

2.Gainerako langileak.

Gehienez asteen 40 orduko lanaldia izango dute, eta urteko kopurua 2006an ezin izango da 1.786 lanordutik gorakoa, ezta 1.780 lanordutik gorakoa 2007an, ezta 1.775 lanordutik gorakoa 2008an. Ordu horiek honela banatuko dira:

—Goizeko iharduna, 9,30etatik 13,30 etara.

—Arratsaldeko iharduna, 16etatik 20,30etara.

—Larunbatetan, egun osoa jai.

11. artikulua.A eta B moduluak.

Praktika irakasleek hauetako zein modulu (A edo B) jarraitu nahi duten aukeratu beharko dute, horien lan kontratua egiten denean.

Modulua aldatu ahal izateko gutxienez hilabeteko aurrerapenarekin jakinarazi beharko diote enpresari eta ados jarri ondoren, hori aplikatzea edo ez aplikatzea erabakitzeak aukera izango da.

Modulu bat edo bestea aukeratzen ez bada A modulua aukeratzen dela ulertuko da.

12. artikulua.Ordainsariak.

Langileek, erantsitako Alokairu Taulan adierazten diren ordainsariak jasoko dituzte.

2. taldeko administrazioko langileek, gaueko bederatzietan amaituko dute ohizko ordutegia eta horregatik Iharduera Plusa jasoko dute. Hau 39,28 eurokoa izango da 2006 urterako eta hileko guztietan aparteko pagak eta oporrak barne hartuko dira. Era berean, 2006 urterako 5,89 euro ordainduko dira hilean egiten den matrikula bakoitzeko. Zenbateko hori berrikusiko da, eta 2007ko urtarrilaren 1etik eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, kasu bakoitzean aurreko urteko KPI + 0,6 aplikatuta.

2. taldeko langile guztiek, ordaindutako baimen egun bat gozatu ahal izango dute, beti ere enpresari 15 eguneko aurrerapenarekin jakinarazten badiote.

Era berean, 2. taldeko langile guztiek ordaindutako bi eguneko baimena izango dute.

13. artikulua.Aparteko Pagak.

Sektoreko langileek hiru aparteko paga jasotzeko eskubidea izango dute: Udakoa, Gabonetakoa eta Mozkinena.

Paga hauek erantsitako Alokairu Taulak finkatzen duen bezala ordainduko dira. Udako paga uztailaren 15a baino lehen ordainduko da, Gabonetakoa abenduaren 15a baino lehen eta Mozkinena urtearen amaiera baino lehen; azken hau hainbanatu ahal izango da.

14. artikulua.Antzintasuna.

Praktika irakasleek ez dute kontzeptu hau kobratuko, orduko alokairuan zurgatuta dagoela ulertzen baita.

Gainerako langileek, oinarrizko alokairuaren %7ko hiruhilekoak kobratuko dituzte. Hiruhilekoa hilaren lehenengo hamabostaldian iraugitzen bada, hau hilabete horren lehenengo egunetik aurrera kobratuko da eta bestela, hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera. Hau guztia, Langileen Estatutuaren 25. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

15. artikulua. Oporren ordainketa.

Oporrak, erantsitako Alokairu Tauletan zehaztutakoaren arabera ordainduko dira.

16. artikulua. Galdutako Orduak.

Enpresariaren axolagabekeriaren edo fede txarraren ondorioz praktika irakasleak eman ezin izaten dituen orduak, lan egindako ordu gisa ordaindu beharko zaizkio langileari.

17. artikulua. Kontratazioa.

—Aldi baterako kontratua: Langileen Estatutuaren 15.1.b artikuluan ezarri denaren arabera, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera formalizatu ziren edo honako hitzarmen honen indarraldian indarrean dauden kontratuen gehieneko iraupena aldaraztea erabaki da, hain zuzen ere merkatuko inguruabarrengatik, lanen pilaketagatik edo eskabide gehiegi izateagatik egin direnak eta arestian adierazi den legezko manu horrek erregulatzen dituenak.

Kontratu horien gehieneko iraupena hamabi hilabetekoa izango da hamasei hilabeteko epealdi batean, kontratazioa justifikatzen duen arrazoia edo zirkunstantzia gertatzen den egunetik kontatzen hasita zenbatuz.

—Ordukako kontratuak. Orduka edo iraupen mugaturako egiten diren kontratuetan, A moduluarentzat finkatutako zenbatekoak ordaintzea beharrezkoa izango da.

18. artikulua. Soldaten berrikuspena.

2006. urteko taulak hitzarmen honen barruan dauden Soldaten Taulan agertzen dira.

2007ko urtarrilaren 1etik aurrera, hitzarmen honen soldata-tauletan jasota dauden zenbatekoak berrikusiko dira, eta 2006ko abenduaren 31n indarrean daudenei honako modulu hauek aplikatuko zaizkie:

a) A eta B moduluetak langileentzat;

2006ko KPI + 0,6

A moduluko langileentzako oporren soldata zehazteko, berrikuspenaren osteko ordu bakoitzeko zenbatekoa 127 ordurekin biderkatuko da (2006koa zehazteko erabiltzen ziren 125 orduen ordezt), baina, era horretan, urteko zenbaketan, ondoriozko soldata KPI + 0,6 aplikatuta lortzen den kopuru bera izango da.

A moduluko irakasleen aparteko soldaten zenbatekoa zehazteko, berrikuspenaren osteko ordu bakoitzeko zenbatekoa 110 ordurekin biderkatuko da (2006an egin den bezalaxe).

b) Teoriako irakaslearen kategoriarako;

KPI + 1,2

c) Administrazioiko eta garbitze-lanetako langileentzat (2. taldea);

KPI + 1,00

2008ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2007rako aurreikusitako berrikuspenaren ondoriozko soldata-taulen zenbatekoak berrikusiko dira eta 2007ko abenduaren 31n indarrean daudenei honako modulu hauek aplikatuko zaizkie:

a) A eta B moduluetak langileentzat;

2007ko KPI + 0,6

A moduluko langileentzako oporren soldata zehazteko, berrikuspenaren osteko ordu bakoitzeko zenbatekoa 130 ordurekin biderkatuko da (2007koa zehazteko erabiltzen ziren 127 orduen ordezt), baina, era horretan, urteko zenbaketan, ondoriozko soldata KPI + 0,6 aplikatuta lortzen den kopuru bera izango da.

A moduluko irakasleen aparteko soldaten zenbatekoa zehazteko, berrikuspenaren osteko ordu bakoitzeko zenbatekoa 110 ordurekin biderkatuko da (2007an egin den bezalaxe).

b) Teoriako irakaslearen kategoriarako;

KPI + 1,00

c) Administrazio eta garbitze-lanetako langileentzat (2. taldea);

KPI + 1,00

19. artikulua. Soldaten ordainketa.

Hileko alokairuaren ordainketa, hilaren azken lanegunean egin beharko da, baina hurrengo hilaren lehenengo 5 egun arteko epea utziko da.

Hileko alokairuaren eta aparteko pagen ordainketa aipatu datetan burutzen ez bada, 5 egun naturaleko atzerapen bakoitzagatik zordundutako zenbatekoaren %1eko errekargua ordaindu beharko zaio langileari.

20. artikulua. Gaisotasuna eta istripua.

Lanean gertatzen ez diren istripuengatik edo gaisotasunagatik EI (bajak), osatu egingo dira 1. taldeko langileentzat, gutxienez 1.331,91 eurora heldu arte, 2006. urtean. Zenbateko hori berrikusiko da, eta 2007ko urtarrilaren 1etik eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, kasu bakoitzean aurreko urteko KPI + 0,6 aplikatuta. Eta 2. taldeko langileen kasuan, beraien ogibidesarien zenbateko osora heldu arte. Hau guztia gorabehera, bi taldeentzako gehigarria gehienez hamabi hilekoa izango da.

1. taldeko langileen gaixotasun profesional edo laneko istripuen ondorio diren E.I. kasuetan (bajak) ere aurreko lerrokadan ezarri diren zenbatekoak jasoko direla bermatuko da, baldin eta subsidioaren zenbatekoa horiek baino baxuagoa bada, eta 2. taldeko langileentzat dagozkien ogibidesarien zenbateko osora heldu arte.

21. artikulua. Gidatzeko baimena denboraldi baterako kentzea.

Praktika irakasle bati denboraldi baterako gidatzeko baimena kentzen badiote honi lanpostua gordeko zaio eta denboraldi hau eszedentzia berezi gisa izango zaio kontuan.

22. artikulua. Praktika-ikastorduen banaketa.

Praktika-ikastorduen banaketa, ahalik eta modu orekatuenean egingo da Autoeskola bakoitzeko irakasleen artean.

Inoren konturako langilerik ezin da kontratatu, egungo plantilarekin eskaria estali ezin denean izan ezik.

23. artikulua. Asegurua.

Iraupen mugagabeko kontratua duten langileei, poliza kolektibo bat kontratatuz ondorengo kalte-ordainak bermatuko dizkie enpresak, 24 orduetan eta ondorengo balizkoetarako:

a) Istripu heriotzagatik: 20.725,90 euro.

b) Lan istripu edo lanekoa ez den istripu eratorritako elbarritasun iraunkoragatik eta duen mailaren arabera 34.543,18 euro arte.

Kopuru horiek indarrean sartuko dira honako hitzarmen hau argitaratzen den egunetik aurrera; era berean

zenbateko horiek berrikusiko dira, eta 2007ko urtarrilaren 1etik eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak, kasu bakoitzean aurreko urteko KPI + 0,6 aplikatuta.

24. artikulua.Berme Sindikalak.

Iharduera sindikaletan parte hartzeak ez du zigorrik edo diskriminaziorik eragingo enpresaren aldetik.

Hauteskunde sindikal berriak egiten diren arte, Hitzarmen honetako Batzorde Mistoa izango da organo negoziatzailea.

3 langile edo gehiagoko enpresetan ordezkari bat aukeratuko da.

Sektorean eragin hauetarako konputagarriak diren langileen %10eko gutxieneko afiliazioa duela kreditatzen duen legezko Zentral bakoitzak, afiliatutako 25 langileko Delegatu sindikal bat izendatu ahal izango du. Aipatu Delegatu sindikalek, hilean ordaindutako 15 ordu izango dituzte gehienez bakoitzarentzat, eta hauek eragin guztietarako fakturatutako ordu gisa izango dira kontuan. Era berean, prestakuntza sindikalerako ikastaroetara joateko hamar egun naturaleko ordaindutako lizentzia hartu ahal izango dute, hauek, dagokien Zentral Sindikalak behar bezala kreditatzen badituzte.

Afiliatutako langileen erreklamazio pertsonaletarako, sindikatu sinatzaile guztiek mahai parekide bat osatuko dute Hitzarmena sinatzeko egintzan bertan. Mahai parekide hau alde bakoitzeko bi ordezkari osatuko dute eta erreklamazioak dauden bakoitzean bilduko da. Akordio batera iristen badira, erreklamazioari hilabeteko epearen barruan erantzun beharko zaio eta akordiorik ez badago eta interesatuak uko egiten ez badu, mahai parekideak izendatuko duenaren arbitraia jasango du.

25. artikulua.PRECO II.

Batzorde Parekideak erabaki gabeko gatazken eta arazoen ebazpena: Batzorde Parekideak, PRECO IIko 5. artikuluan ezarritako hilabeteko epean, Hitzarmen Honek esleitzen dizkion betekizun kolektiboekin zerikusik dituzten gaiak buruz ez badu akordiorik lortu, 11. eta 15. artikuluetan eta PRECO IIko 3. xedapen gehigarrian aurrikusitako bitartekaritza eskatu ahal izango du alde bietakoren batek.

Aurrean aipatutako kasuetan, Hitzarmen honek ukitutako aldeak PRECO IIan aurrikusitako arbitraje-prozedurara jo dezake baldin eta Batzordeak erabaki gabeko gatazkaren ondorioz eragindako aldearen gehiengoak hala onartzen badu.

Batzorde Parekidearengana adiskidetze edo arbitraje bila aurkeztu eta honek hilabeteko epean erabaki ez dituen gatazka indibidualei dagokionean, bi aldeetako batek PRECO II Akordioaren testuinguruan sor daitezkeen adiskidetze edo arbitraje-bideak erabili ditzake, aurreko atalean aipatutako era berean.

26. artikulua.Batzorde Parekidea.

Batzorde Parekidea eratuko da, eta honakoek osatuko dute: Enpresaren ordezkari bik eta langileen beste ordezkari bik.

Batzordearen zereginak izango dira hurrengoak:

- a)Hitzarmenean aurrikusten ez diren eragin edo ondorioei buruzko erabakia hartzea.
- b)Diskriminazioek edo beste arrazoiek eragindako salaketak ebaztea, horretarako afektatuek Zentral honetara jo beharko dutelarik.

Batzorde honen erabakiek Hitzarmen lerruna izango dute.

27. artikulua.Etengabeko heziketa.

Hitzarmen honek eragindako zentroetako langileen lanbide-kualifikazioa hobetu eta egokitzea zuzendutako heziketa-planak, 1995eko irailaren 28an Euskal Autonomi Elkartearekin harpidetutako Etengabeko Heziketaren Akordioan ezarritako eran eta baldintzetan beteko dira eraketari, izapidetzari eta emateari dagokionean.

28. artikulua.Prestatzea.

Prestatzeari eta euskalduntzeari buruz honako araudi hau ezarri da:

a)Bi kasuetarako: Prestakuntzako edota euskalduntzeko ikastaroetan parte hartu ahal izango dute enpresako langileek, baldin eta egoera horretan daudenak enpresa horretako langileen eta lanbide-mailaren %10 baino gehiago ez badira. Enpresak ezin izango du muga hori langile bat baztertzeko erabili, prestatzeko edota euskalduntzeko sarbidea etengabe oztopatuzko helburuz.

b)Prestakuntzari dagokionez, beti laneko jarduerari buruzkoa izango da, ezinbestean.

Prestakuntza enpresak eskatuta egiten bada, enpresak abonatu du prestakuntzaren kostu osoa, kontzeptu guztiengatik, bai eta egindako ikastaroaren denborari dagozkion soldatak.

Prestakuntza langileak eskatuta egiten bada, langileak ordaindu gabeko baimena izango du ikastaroak irau bitartean. Ikastaroaren kostu osoa, kontzeptu guztiengatik, langilearen beraren konturakoa izango da.

29. artikulua.Hizkuntza-normalkuntza.

a)Euskalduntzeari dagokionez: Euskalduntzeko prestakuntzari dagokionez, kostua erdibana ordainduko dute enpresak eta langileak. Halaber, erabilitako ikastaroari dagokion soldata gutxituko da lanean aritzekotan izango zukeenaren erdiraino.

b)Autoeskoletako titularrek, langileekin edo sindikatuetakoko ordezkariekin bat etorrira –horrelakorik bada–, hizkuntza-normalkuntzarako planak bultzatuko dituzte.

30. artikulua.Atzerakinak.

Hitzarmen honen atzeraeraginez 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharreko alokairuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo hilaren barruan ordainduko dira.

31. artikulua.Araudi Subsidiarioa.

Hitzarmen honetan xedatzen ez denari dagokionez, Lan Ordenantzan eta indarreko Legeetan xedatutakoa jarraituko da.

32. artikulua.Laneko arriskuen Prebentzioko Batzordea.

Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek Batzorde Parekide bat osatuko dute, eta alderdi bakoitza eratuko da sindikatuak eta enpresak une bakoitzean duten ordezkariaren arabera. Batzordeak helburu izango du laneko arriskuen prebentzioari buruzko ikerkuntza eta Osalan-ekiko lankidetzak.

Batzordea eratuko da Hitzarmen hau sinatu eta hurrengo hilabetearen barruan, eta gehienez lau kidek osatuko dute (enpresaren ordezkari bik eta langileek beste ordezkari bik). Gutxienez urtean birritan bilduko da, eta bileren deialdiak hitzarmena sinatu duten alderdi bietako edozeinek eskatuta egin ahal izango dira.

33. artikulua.Salaketa eta luzamendua.

Hitzarmen honen salaketa, sinatzen duten alderdietako edozeinek egin ahal izango du, bere indarraldiaren edo luzamenduetako edozeinen amaierarekiko hilabeteko aurrerapenarekin. Hitzarmen hau urtero, espreski eta aldibaterako luzatuko da 2008ko abenduaren 31tik aurrera. Luzamenduak Sektoreko Hitzarmen Kolektibo berria indarrean sartzen den arte iraungo du, barne hartzen dituen araei nahiz betekizunei dagokienez.

<i>Kategoria Categorías</i>	<i>Oinarrizko Alokairua Salario Base</i>	<i>Ihard. Plusa Plus Activ.</i>	<i>Oporretak Vacaciones</i>	<i>Aparteko P. P.Extra</i>	<i>Hirurtekoa Valor trienio</i>	<i>Urteko Guztizkoa Total anual</i>
<i>- 1 Taldea / Grupo 1</i>						
Irakasleak (1) / Pers.Docente(1)						
Praktika Irak. / Prof.Prácticas						
A Modulua / Módulo A	11,19		1.398,75	1.230,90		21.093,15
B Modulua / Módulo B	10,21					
Teoria Irak. / Prof.Teoria	851,78	212,96	1.064,74	1.064,74	59,62	15.971,10
<i>- 2 Taldea / Grupo 2</i>						
Irakasle ez diren lang. / Pers.no docente						
Adm. Ofiziala. / Oficial Adm.	845,84	199,44	1.045,28	1.045,28	59,20	15.679,20
Adm. Laguntz. / Auxiliar Adm.	734,56	193,82	928,38	928,38	51,42	13.925,70
Garbitzailea / Limpieza	734,56	193,82	928,38	928,38	51,42	13.925,70

A Modulua:

a) Aseguratutako gutxiengoa 1.230,90 euro.

b) Urteko guztizkoa, hilean lan egindako 130 orduko batezbestekoarekin kalkulatua.

Modulo A:

a) Mínimo asegurado: 1.230,90 euros.

b) Total anual, clculado con un promedio de 130 horas/mes trabajadas.